

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**Berriz ere argitaratzea 3183 iragarkia, zeinaren bidez onesten baitira Arabako Lurralde Historikoko udal eta kontzejuen ondasunen inbentarioa egiteko dirulaguntzetarako deialdia eta hura arautzen duten oinarri orokorrak**

Hutsa egin denez gero 2018ko abuztuaren 13ko ALHAOn (93. zk.) argitaratutako 3183 iragarkian, osorik argitaratzen da.

Foru Gobernu Kontseiluaren 39/2018 Foru Dekretua, abuztuaren 3koa. Onestea Arabako lurralde historikoko udal eta kontzejuen ondasunen inbentarioa egiteko dirulaguntzetarako deialdia eta hura arautzen duten oinarriak.

Kontzejuen Foru Arauak (11/1995 Foru Araua, martxoaren 20koa) 42. artikuluan dio Arabako kontzejuek betebeharra dutela beren ondasun eta eskubide guztien inbentarioa egiteko, edozein izanik ere haien izaera edo eskuratu ziren modua.

Bigarren paragrafoan xedatzen du Arabako Foru Aldundiak inbentario horiek egiteko bitarteko egokiez hornituko dituela.

Bestalde, Toki erakundeen ondasunei buruzko Erregelamenduak arautzen du udalek ere beren ondasun inbentarioak egin behar dituztela.

Dokumentu horiek osatzen laguntzeko, hain zuzen, eman behar die Arabako Foru Aldundiak dirulaguntza. Dirulaguntzen xedea da, hain zuzen, toki erakundeei laguntzea gauza izan daitezen inbentarioak egiteak dakartzan gastuei aurre egiteko.

Kontsideraturik beharrezkoa dela oinarri argi eta zehatzak ezartzea dirulaguntza horiek eskuratzeko, eta oinarri horiek objektibotasun, lehia eta publizitatearen printzipioak bermatu behar dituztela, eta, halaber, aplikatuz Arabako lurralde historikoko dirulaguntzen Foru Arauak (11/2016 Foru Araua) ezarritakoa, hona hemen ondasunen inbentarioak egiteko toki erakundeentzako dirulaguntzak arautuko dituzten oinarriak.

Horregatik, diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea, Arabako lurralde historikoko udal eta kontzejuei beren ondasunen inbentarioa egiteko, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailearen dirulaguntzak lehiaketa bidez ematea arautuko duten oinarri arauak.

Aipatutako oinarriak dekretu honen I. eranskinean jasotzen dira.

Bigarrena. Onestea lehiaketa bidez emango diren dirulaguntzetarako deialdia, zeina 300.000,00 euroekin hornituta baitago. Deialdi hori espedienteari gehitzen zaio; hain zuzen ere, dekretu honen II. eranskin gisa.

Hirugarrena. Dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2018ko aurrekontuaren "10.2.98.1700.762.90.03" partidaren (Kontzeju eta udal txikien inbentarioak) kontura ordainduko dira (lerroa: 10-266; xedapen erreferentzia: 105-3830/000 18.1.18.

Laugarrena. Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 29ko 821/2017 Erabakiaren bidez onetsitako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, ebazpen honi datxekion III. eranskina txertatuz.

Bosgarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abuztuaren 1a

*Diputatu nagusia*

*RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE*

*Diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren saileko diputatua*  
*MARÍA PILAR CARCÍA DE SALAZAR OLANO*

*Lurralde Orekaren zuzendaria*

*IÑAKI GUILLERNA SÁENZ*

## I. ERANSKINA

Arabako lurralde historikoko udal eta kontzejuei beren ondasunen inbentarioa egiteko, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailaren dirulaguntzak lehiaketa bidez ematea arautuko duten oinarri arauak

### 1. Xedea eta aplikazio eremua

Dekretu honek, Arabako lurralde historikoko udal eta kontzejuei beren ondasunen inbentarioa egiteko, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailaren dirulaguntzak, aurrekontu kredituen konturakoak, lehiaketa bidez ematea arautzen duten oinarri arauak ezartzen ditu.

### 2. Printzipio orokorrak:

Esleitzen diren dirulaguntzak printzipio hauen arabera kudeatuko dira:

- Publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibitatea, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
- Eraginkortasuna ezarritako helburuak betetzeko.
- Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak baliabideak efizientziaz esleitu eta erabiltzea.

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 3. artikuluan xedatutako printzipio orokorrekin bat etorri arautuko dituzte beren jarduerak dirulaguntza hauen onuradun izan daitezkeen toki erakundeek, eta lege horrek aitortzen dizkien eskumen eta eginkizunen arabera beteko dituzten beren betebeharrak. Hain zuzen ere, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 20.2 eta 20.3 paragrafoak aplikatuko dira, diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko administrazio kontratuak egiten direnean. Ondorioz, kontratua gauzatzeko ezinbesteko baldintza da esleipendunak, zerbitzua eskaintzean, gizonen eta emakumeen berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatzea, dena ere kontratuen legedia betez eta baldin eta organo eskudunak erabaki badu neurri hori aplikatzea merezi duen kontratu mota dela edo hartarako ezaugarriak dituela.

### 3. Erakunde edo erakunde onuradunen betebeharrak:

Onuradunak direla joko da dirulaguntza esleitzeko zio den egoeran dauden pertsona fisiko edo juridikoak edo oinarri arautzaileetan eta deialdian jasotzen diren inguruabarrak eragiten dietenak, 38/2003 Legean (38/2003 Legea, azaroaren 17koa, dirulaguntzen orokorra), 11/2016 Foru Arauan eta deialdian ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Dirulaguntza eskatu ahal izango dute eskabidea egiten den egunean 38/2003 Legearen 11. eta 13. artikuluetan (38/2003 Legea, azaroaren 17koa, dirulaguntzen orokorra) eta 11/2016 Foru Arauaren 10. eta 12. artikuluetan (11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzena) ezarritako baldintzak eta beste baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak:

- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik izatea.

Hauek ez dira onuradun izango:

- Laguntza lerro horren aurreko deialdietan emandako dirulaguntzen ondoriozko betebeharrak guztiak bete ez dituzten erakunde edo pertsonak.

- Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orokorraren Sailaren aurrekontuan dirulaguntza izendunak dauzkaten pertsona edo erakundeak, haien xedea dirulaguntzarena bera delarik, eta, halaber, haiekin elkarrekin osatzen dutenak.

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak (dirulaguntzen lege orokorra) IV. tituluaren aipatzen dituen arau hausteengatik zehapenik izan duten pertsona eta erakundeak; baita 11/2016 Foru Arauak (Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen foru araua), titulu berean aipatzen dituenak ere. Era berean, Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legean (otsailaren 18koa, emakume eta gizonen arteko berdintasunerakoa) eta 3/2007 Lege Organikoak (martxoaren 22koa, emakume eta gizonen arteko berdintasunerakoa) ezarritako kasuetan dauden pertsona edo erakundeak.

Deialdiak determinatuko ditu dirulaguntza eskuratzeko behar diren baldintza espezifikoak eta horiek egiaztatzeko modua.

Dirulaguntzen pertsona edo erakunde onuradunek egiaztatu egin beharko dute zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dauzkatela, non eta ez diren salbuetsiak 58/2004 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, organismo eskudunek kontu horiei buruz jaulkitako justifikazio agiriak aurkeztuz; halaber, ezin die eragin 38/2003 Legeak 13.2 artikuluan (38/2003 Legea, azaroaren 17koa, dirulaguntzen orokorra) eta 11/2016 Legeak 12.2 artikuluan (11/2016 Legea, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzena) ezarritako debekuetako batek ere. Zerga betebeharrari dagokienez, Arabako Lurralde Historikokoan zerga egoitza duten pertsona edo erakunde onuradunek nahikoa dute egoera horretan daudela adieraztea, eta Foru Aldundiaren gain geratuko da ziurtagiria jaulkitzea Foru Ogasunaren bidez.

#### **4. Eskabideak aurkeztea: epea**

4.1. Eskabidea aurkezteko epea deialdian egongo da ezarrita, eta ezingo da izan hamabost egun baino gutxiago, dagokion deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Eskabideak diputatu nagusiordeari eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orokorraren Sailako diputatuari zuzendu behar zaizkio, eta Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztu ahal izango dira (Probintzia plaza, 5, Gasteiz), edo Foru Aldundiaren beste erregistro batzuetan eta itundutako udalen erregistro orokorretan, hargatik eragotzi gabe administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearen legearen 16.4 artikuluan ezarritakoa (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa).

Baldin eta aurkeztutako eskabideek ez badituzte betetzen adierazitako baldintzak, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orokorraren Sailak pertsona edo erakunde interesdunei eskatuko die konpon dezatela hutsa edo aurkez ditzatela aginduzko agiriak, eta adieraziko ezen, osterantzean, artxibatu egingo dutela eskabidea, adituz atzera egin dutela beren eskabidean.

4.2. Nolanahi ere, berariaz adieraziko da jakinarazpenak egiteko helbidea.

4.3. Dirulaguntza eskabideak aurkezteak berekin dakar formalki eta berariaz onartzea oinarri hauetan eta kasuan kasuko oinarri espezifikoetan ezarritakoa.

## 5. Deialdia ebaztea

5.1. Prozedura bideratzeko organo eskuduna Arabako Foru Aldundiaren Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailean dirulaguntza izapidetzen duen unitate organikoa izango da.

5.2. Balorazio batzorde batek aztertuko ditu eskabideak, eta Lurralde Orekaren zuzendaria izango du buru, eta Lurralde Orekaren Zuzendaritzari atxikitako bi teknikari kide; Toki Administrazioaren Zerbitzuaren eta Larrialdien burua izango da idazkari.

Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak, egoki deritzen kasuetan, aukeran izango du aurkeztutako agiriei buruzko datuak eta azalpenak eskatzea. Espedientea atzeratu, eta are artxibatu ere egin daiteke, datu edo azalpen horiek ez badira bideratzen 39/2015 Legeak ezartzen dituen epeetan (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena).

Balorazio batzordeak, aurkeztutako eskabideak alderatu ondoren deialdian ezarritako irizpideen arabera, txosten bat emango du, ebaluazioaren emaitza zehaztuz eta eskabideen artean hurrenkera bat ezarriz emaitzaren arabera.

Organo bideratzaileak, espedientea eta balorazio batzordearen txostena ikusirik, behin-behineko ebaluazio proposamena egingo du, behar bezala arrazoituz.

Entzunaldiaren izapidea egin beharrik ez da izango, baldin eta pertsona edo erakunde interesdunek aurkeztutako egitateak eta alegazioak baino ez badira agertzen prozeduran eta horiek baino ez badira kontuan hartzen; horrela gertatuz gero, egindako ebazpen proposamena behin betikoa izango da.

5.3. Organo eskumendunak bidezkoa den ebazpena hartuko du, organo instruktoreak proposatuta, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, erakunde edo pertsona interesdunek ezetsitatzat jo ahal izango dute eskabidea.

5.4. Dirulaguntza esleitzeko ebazpenak, bestalde, honako hauek jaso behar ditu: dirulaguntza nori esleitu zaion; gainerako eskabideen esanbidezko ezespina; eta, aukerakoa izanik, eskabideen zerrenda bat, oinarri arautzaileek onuradun izateko ezarritako baldintza administratibo eta teknikoak bete arren deialdian ezarritako gehienezko kreditua gainditzearren ezetsi egin diren guztiena, haien arteko hurrenkera deialdian ezarritako balorazio irizpideen arabera bakoitzari eman zaion puntuazioari jarraituz ezarririk.

Kasu horretan, onuradunen batek uko egiten badio dirulaguntzari, organo eskudunak erabakiko du, beste deialdi bat egin beharrik gabe, dirulaguntza esleitzea puntuazio hurrenkeran hurrengo dagoen eskatzaileari edo eskatzaileei, baldin eta, betiere, erakunde onuradunetako baten ukoarekin, behar beste kreditu liberatzen bada gutxienez ezetsitako eskabideetako bati erantzuteko.

5.5. Ebazpena baiestekoa bada, dirulaguntza zenbatekoa den adieraziko da, nola ordainduko den, eragiten zaion jardueraren programa, zer dokumentazio aurkeztu behar diren eta zein baldintzarekin ematen den dirulaguntza, eta jakinarazi egingo zaie erakunde onuradunei, 39/2015 Legearen 41. artikuluan ezarritakoaren arabera (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena).

5.6. Dirulaguntza eman ala ukatu zaien jakinaraziko zaie eskatzaileei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak 41. artikuluan eta hurrengoetan xedatutako moduetakoren batean (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena).

5.7. Ebazpenak administrazio bideari amaiera emango dio eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, 29/1998 Legearen 8. artikulua xedatutakoaren arabera (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena), bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunetik aurrera.

Zuzenean aurkatu ezean, aukeran izango da haien kontra berraztertze errekurtsoa aurkeztea ebazpena eman zuen organoaren aurrean hilabete bateko epean, 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkideari buruzkoa).

#### **6. Dirulaguntzaren zenbatekoa edo hura determinatzeko irizpideak**

6.1. Deialdiek dirulaguntzaren banakako zenbatekoa jasoko dute, dirulaguntzaren xedea kontuan izanda.

6.2. Ezinezkoa bada hura determinatzea, deialdian irizpide objektiboak ezarri beharko dira hura zehazteko, eta, hala balegokio, irizpide horiek nola haztatu behar diren, dirulaguntzaren xedeari egokituta, eta horien artean egon beharko da nahitaez aurrekontu baliabideak aintzat hartzea..

6.3. Ez dute dirulaguntzarik jasoko, kasuan kasuko deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera baloratuta gero 150,00 eurotara edo, hala dagokionean, deialdiaren oinarrietan xedatutako zenbatekora heltzen ez diren eskabideek.

#### **7. Dirulaguntzak zer gasturi eragiten dien**

7.1 Oinarri hauek araututako dirulaguntzak egindako gastuetarako izango dira, baldin eta dirulaguntzaren xede den proiektua garatzeko egin badira, eta diruz lagundu daitezkeen konzeptuak ezarriko dira deialdi bakoitzean.

Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta oinarri arautzaileek ezarritako epeetan egiten direnak.

7.2. Aldiz, ondoko gastu hauek ezin dute dirulaguntzarik jaso:

- a) Bankuko kontuen interes zordunek.
- b) Interesek, errekarquek eta administratibo eta zigor zehapenek.
- c) Prozedura judizialetako gastuek.

Zergak dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartuko dira erakunde edo pertsona onuradunak ordaintzen baditu.

Zeharkako zergak berreskuratu edo konpentsatu ahal badira, ez dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko, eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere ez.

7.3. Dirulaguntzaren xedea kontuan hartuta, deialdi bakoitzeko oinarri arautzaileek dirulaguntzen onuradunek egindako zeharkako gastuen ehuneko jakin bat ezarri ahalko dute eta berau diruz lagundu daitekeela ulertuko da, justifikatu behar izanik gabe, betiere kostu horiek jarduera benetan gauzatzen den aldiari badagozkie.

7.4. Dirulaguntzen zenbatekoa, beste laguntza batzuekin zein administrazio publiko batzuek edo nazioko zein nazioarteko erakunde pribatu batzuek emandako laguntzekin edo bestelako diru sarrerekin batera, ezin izango da inola ere pertsona edo erakunde onuradunaren jardueraren kostua baino gehiago izan.

7.5. 38/2003 Legearen 31.3 artikuluan (38/2003 Legea, azaroaren 17koa, dirulaguntzen orokorra) eta 11/2016 Foru Arauaren 29.3 artikuluan (11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzena) ezarritakoa betez, diruz lagun daitezkeen gastuaren zenbatekoak gainditu egiten baditu 9/2017 Legean (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena) kontratu txikirako ezarritako kopuruak, erakunde onuradunak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, obrarako konpromisoa hartu, zerbitzua eman edo ondasuna entregatu baino lehen, salbu eta bere ezaugarri berezien ondorioz merkatuan ez badago erakunde kopuru nahikorik hori egin, eman edo hornitzeko, edo gastua dirulaguntzaren aurretik egin bada.

Hiru eskaintzak froga-agiriekin batera edo, hala badagokio, dirulaguntza eskabidean aurkeztu beharko dira. Horien artean aukeratzea eraginkortasun eta ekonomia irizpideei jarraituz egingo da eta, aukeratutako eskaintza diru aldetik hoberena ez denean, egindako aukera esanbidez arrazoitu beharko da memoria batean.

### **8. Ordainketak**

Dirulaguntza ordaintzeko, aldez aurretik erakunde onuradunak justifikatu egin beharko du gauzatu duela dirulaguntza emateko arrazoi izan zen jarduera, proiektua edo xedea edo jokatu duela hura emateko eskatzen zen jokabidearekin, dirulaguntza arautzen duen araudian ezarritako baldintzen arabera.

Dirulaguntza arautzen duen araudian agertu beharko da jasota ordainketa aurreratua eta konturako ordainketak egiteko aukera, foru araudian ezarritakoaren arabera.

Aurrerakinaren ordainketa, dirulaguntza esleitzeko ebazpenean hala adierazten bada, deialdia ebatzen den egunetik aurrera egin beharko da.

Aurrerakinik bada, gainerakoa ordainketa bakar batean ordainduko da, aldez aurretik gastuak justifikatuta, haiek behar bezala xehakaturik, eta, ordainketa horretan, aurreko paragrafoan adierazitako "aurrerakina" kendu beharko da; hala eta ere, guztirako gastuak justifikatu beharko dira justifikazioa aurkezteko ezarritako epe berean.

Dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako gastuak ordaindu izana frogatzen ez bada, justifikatu beharreko aurrerakin gisa ordainduko da dirulaguntza.

### **9. Dirulaguntza aldatzea**

Onetsitako dirulaguntza berriro aztertuko da, gastua finantzatzeko beste erakunde batzuek egindako ekarpen osagarriak edo beste diru sarrera batzuk ere erabili direla jakiten bada. Horrelakoetan, diruz lagundutako gastuen eta diru sarreraren arteko likidazioa egin eta hortik ateratzen den emaitza defizitarioa izango da dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan aldatetaren bat gertatuz gero eta, kasu guztietan, edozein erakunde publiko edo pribatuk gai bererako dirulaguntzak edo laguntzak eskuratuz gero, esleipen-ebazpena aldatu egingo da, eta dirulaguntzaren zati bat itzuli. Behin dirulaguntza onetsitakoan, hura esleitzeko arrazoi izan ziren egitatezko inguruabarrek hura aldatzea eragiten badute, diputatu nagusiordeak eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreakaren Saileko diputatuak, dirulaguntzaren onuradunak arrazoituki proposatuta, bere esku izango du dirulaguntza aldatzea dagokion foru aginduaren bidez.

### **10. Justifikazioa**

10.1. Dirulaguntzen pertsona edo erakunde onuradunek, deialdian ezarritako epean, instrukzio organoaren aurrean justifikatu beharko dute ezarritako baldintzak betetzen dituztela eta dirulaguntza esleitzeko ekitaldian xedaturiko helburuak bete dituztela.

10.2. Justifikazio kontu sinplifikatua aurkeztuta egiteko justifikazioa ezarriko du deialdiak, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelameduaren 75. artikulua araututako eran.

Honela osatuko da justifikazio kontu erraztua:

1.) Memoria bat, justifikatuz dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak nola bete diren eta adieraziz gauzaturako jarduerak eta lortutako emaitzak.

2.) Jarduerako gastu eta inbertsio guztien zerrenda sailkatu bat, ondoko hauek adierazten dituen: hartzekoduna, gastu agiriaren edo fakturaren zenbakia, zenbatekoa, jaulkitze data eta, hala badagokio, ordainketaren data. Deialdi bakoitzaren oinarrietan determinatu beharko da zein gutxienezko zenbatekotik aurrera -gastu bakoitzerako, banaka hartuta, edo gastu kontzeptu bakarrerako denak batera hartuta-, aurkeztu behar diren ordainagiriak edo dokumentu baliokide jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatutakoak eta dagozkien ordainketa frogagiriak.

3.) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarrera eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

4.) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa gutuna, aplikatu ez diren gerakinen kasuan; baita horietatik eratorritako interesena ere.

Dirulaguntza ematen duen organoak egoki irizitako frogagiri guztiak egiaztatuko ditu, deialdian erabakitako laginketa tekniken bitartez, dirulaguntza behar bezala aplikatu den argitzeko. Horretarako, hautatzen dituen gastu frogagiriak igortzeko eskatu ahal izango die erakunde onuradunei.

10.3. Dirulaguntzak justifikatzean baliabide elektronikoen, informatikoen eta telematikoen erabilera arautzen duen uztailaren 17ko EHA/2261/2007 Aginduan xedatutakoarekin bat etorrituz, justifikatzeko modu gisa erabili ahal izango dira faktura elektronikoak.

Faktura elektronikoak aurkeztuz gero, Factura-e eta E4ktur motako estandarretara egokitu beharko da haien formatua. Elektronikoki sinatutako beste edozein agiri aurkeztuz gero, @firma plataformak onartzen dituen ziurtagiriak onartuko dira..

10.4. Adierazitako epea igaro eta lehen aipatutako agiriak aurkeztu ez badira, ordainketa kredituak baliogabetu egingo dira, eta "konturako ordainketa" gisa jasotako dirua itzultzeko espedienteari hasiera emango zaio.

### **11. Dirulaguntzen aldiberekotasuna eta bateragarritasuna**

Oro har, beste administrazio batzuek zein nazioko edo nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatuak emandako beste dirulaguntza batzuk jasotzea onartzen da, baldin eta dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, ez bada diruz lagundutako jarduera baino gehiago edo ez bada eragiten eskatutako finantzazioa jaisterik, hala badagokio, diruz lagundutako jarduera aurrera ateratzeko.

### **12. Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailaren babesa**

Dirulaguntzen pertsona edo erakunde onuradunek hitzematzen dute Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapen eta Lurralde Oreka Sailaren laguntza dutela egitarauetan, iragartzeko karteletan, argazkietan nahiz diruz lagundutako proiektua dela eta argitaratzen diren gainerako material grafiko, idatzi zein entzunezkoetan. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili behar izango dira.

Erakunde onuradunak hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatu behar du agiri guztietan, 4/2005 Legea betetzeko (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako). Aipatutako legeari jarraituz, argitaratzen diren irudietan ezingo dira pertsonak erakutsi, sexu batekoak edo besteak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu objektu soil gisa, estereotipo sexistak saihestuko dira eta bultzatuko da dibertsifikazio sexuala, roletakoa eta genero identitateetakoak.

### **13. Dirulaguntza itzultzea**

11/2016 Foru Arauan (Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzena) eta 38/2003 Legean (azaroaren 17koa, dirulaguntzen orokorra) eta 887/2006 Errege Dekretuan (uztailaren 21ekoa, 38/2003 Legearen Erregelamendua onestekoa: 38/2003 Legea edo dirulaguntzen orokorra) ezarritako kasuetan itzuli egin beharko dira jasotako dirulaguntzak.

Jaso ondoren itzuli beharreko dirulaguntzak zuzenbide publikoko sarrera izango dira, eta 53/1992 Foru Arauko I. kapituluko II. tituluan ezarritakoaren arabera kobratuko dira (53/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, ekonomia eta aurrekontu araubidearena)

#### 14. Egiaptapena

Diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatuak deialdi honen eta, hala badagokio, oinarri hauen garapenerako bidezkoztat jotzen diren ebazpenak emango ditu, dirulaguntza tramitatzen duen unitate organikoaren ekimenez, eta akzioak baliatu ahal izango ditu erakunde onuradunek emandako datuak egiazkoak direla eta oinarri hauetan araututakoa betetzen dela egiaztatzeko eta horretara behartzeko.

Horretarako, pertsona edo erakunde onuradunek hitzematzen dute beraiek egindako jarduekin loturik dauden eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren Sailak eskatzen dizkien datu eta dokumentu guztiak emateko. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo eskumena duten beste erakundeek eskatzen dieten informazio guztia ere eman beharko dute.

#### 15. Erantzukizunak

Pertsona edo erakunde onuradunek programa edo jarduera egiteak sor ditzakeenen erantzule dira eta indarrean den legediak haiek egiteko eskatzen dituen baimenak eskatu beharko dituzte.

#### 16. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioan edozein zalantza sortuz gero, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren Sailak ebatziko ditu.

#### 17. Errekurtoak

Oinarri hauek eta haien ondorioz sortutako administrazio egintza oro aurkaratu ahalko dira, 39/2015 Legean ezarritako kasuetan eta eran (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena).

#### 18. Aplikatu beharreko arautegia

Oinarri hauetan xedatu ez den edozertarako, honako arau hauek aplikatuko dira: 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzkoa; 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzena; 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, azaroaren 17ko 38/2003 Legea Orokorra onartzen duena, uztailaren 1ekoa; 53/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Lurralde Historikoko aurrekontu araubide ekonomikoarena, indarrean dagoen aurrekontu antolamendua; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena; eta aplikagarriak diren gainerako arauak.

#### 19. Indarrean sartzea

Oinarri hauek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean.

## II. ERANSKINA

Udalei eta kontzejuei ondasun inbentarioak egiteko dirulaguntzak emateko deialdia

#### Lehenengoa. Deialdiaren xedea

Arabako 250 biztanletik beherako udalei eta kontzejuei ondasun inbentarioak egiteak eragindako gastuak finantzatzen laguntzea.

#### Bigarrena. Erakunde onuradunak

Deialdi honetako baldintzak betetzen dituzten Arabako udalak eta kontzejuak izan ahalko dira onuradun.



**Hirugarrena. Dirulaguntzen xedea**

a) Esandako ondasun inbentario horiek egitea.

Inbentarioan bereiz zehaztuko dira toki erakundearen ondareko ondasun guztiak, diren ondare ondasunak edo jabari publikokoak, epigrafe hauen arabera multzokatuz:

Ondasun higiezinak (landa eta hiri finkak, eraikinak, bide publikoak -bideak, kaleak, plazak, parkeak- eta abar).

Eskubide errealak.

Ondasun higigarri historiko, artistiko eta balio ekonomiko garrantzitsukoak.

Korporazioaren balio higigarri, kreditu eta eskubide pertsonalak.

Ibilgailuak.

Azienda.

Aurreko epigrafe horietan sartzen ez diren higigarriak.

Ondasun eta eskubide itzulgarriak.

b) Inbentarioan jasotako ondasun higiezinak jabetza erregistroan inskribatzea.

**Laugarrena. Dirulaguntzen zenbatekoa**

Dirulaguntzak, berez, inbentarioa egiteak eta jabetza erregistroan inskribatzeak dakarten kostuaren arabera izango dira; edonola ere, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreaken Sailaren ekarpena ezingo da izan erakundeak aurkeztutako aurrekontuaren ehuneko 80 baino gehiago.

Dirulaguntza zenbatekoa izango den behin betiko finkatzeko, lizitazioan aurkezten diren proposamen guztien artean ekonomiaren aldetik abantailatsuenari dagokion dirulaguntza ehunekoa aplikatuko da, kontuan hartu gabe toki erakundeak azkenean zein esleitzen duen.

Dirulaguntzek, guztira, ezingo dute egin 300.000 euro baino gehiago, zenbateko hori Arabako Foru Aldundiaren 2018rako gastuen aurrekontuko 10.2.00 17.00 762.90.03 partidan horrexetarako gaitua izanik.

Udal edo kontzeju bakoitzeko, gehienez ere, 7.500 euro emango dira guztira.

Hasiera batean, 255.000,00 euro gordeko dira kontzejuetarako, eta 45.000,00 euro udal-  
tarako.

Aurreko laguntza lerroetako bakoitzean soberakinak sortuz gero, aukeran izango da gainerako laguntza lerroetako zenbatekoa gehitzea ekitaldian bertan.

Hasieran onuradun izan den toki erakunderen batek uko egiten badio dirulaguntzari, zenbateko horrekin osa daiteke finantziazioaren ehuneko 80ra iritsi ez diren erakunde onuradunena, betiere erakunde bakoitzeko 7.500,00 euroko mugarekin.

**Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea. Epea**

Eskaerak aurkezteko, hogeit hamar eguneko epea egongo da, oinarri hauek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Dirulaguntza mota hau jaso nahi duten erakundeek eskaerarekin batera, inbentarioa egiteak eta jabetza erregistroan inskribatzeak dakarten kostu ekonomikoaren aurrekontu bat aurkeztu beharko da.

Eskaerak Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, edo urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan ezarritako moduan.

Aurkeztutako eskaerek ez badituzte betetzen adierazitako baldintzak, Lurralde Oreaken Zuzendaritzak interesa dutenei eskatuko die hamar eguneko epean akatsak zuzendu edo aginduzko agiriak aurkez ditzatela. Hala egin ezean, eskaera artxibatu egingo da eta beren eskaeran atzera egin dutela ulertuko da.

#### Seigarrena. Prozeduraren instrukzioa eta balorazio irizpideak

1. Espedientea izapidetzeko eskumena duen organoa Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreaken Saileko Toki Administrazioaren Zerbitzua da.

2. Balorazio irizpideak.

Diruz lagunduko diren lanak hautatzeko, aurkeztutako eskaerak ezin badira hornitu aurrekontuan izendatutakoarekin, honako lehentasun irizpide hauei jarraituko zaie:

1) Kontzejuak:

a) Inbentarioa eginik izatea deialdi hau egin baino lehen. 50 puntu.

b) Kontzejuak azken ekitaldi itxian izandako diru sarrera arruntak biztanle kopuruaren artean zatituta ateratzen den ratioaren alderantzizkora, 35 puntu emango dira, formula honen arabera:

$$P_i = 35 \times \frac{R_b}{R_i}$$

—  $P_i$  = Kontzeju bakoitzari esleitutako puntuak.

—  $R_i$  = Baloratzen den kontzeju ratioa.

—  $R_b$  = Biztanleko diru sarrera indize txikiena duen kontzejuaren ratioa.

Baldin formula aplikatuta ateratzen den emaitza biztanle bakoitzeko 250 eurotik beherakoa bada, azken hori ezarriko da beheko mugatzat.

c) Udalerrri bereko hainbat kontzejuak elkarrekin aurkeztea eskaera, 15 puntu.

2) Udalak:

a) Kontzejuak azken ekitaldi itxian izandako diru sarrera arruntak biztanle kopuruaren artean zatituta ateratzen den ratioaren alderantzizkora, 100 puntu emango dira, formula honen arabera:

$$P_i = 100 \times \frac{R_b}{R_i}$$

—  $P_i$  = Udal bakoitzari esleitutako puntuak.

—  $R_i$  = Baloratzen den udalaren ratioa.

—  $R_b$  = Biztanleko diru sarrera indize txikiena duen udalaren ratioa.

Erakunde eskatzaileen artean puntu berdinketarik badago, berdinketa hausteko honako irizpide hauek ezarriko dira, ordenan:

1) Kontzejuari Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtzaren oinarrizko tarteko diru kopurua jasotzea ahalbidetzen dioten zerbitzu gehien dituenak.

2) Biztanle gehien dituenak, Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtzaren azken banaketa egiteko erabilitako datuen arabera.

**Zazpigarrena. Dirulaguntzaren muga**

Emandako dirulaguntzen zenbatekoa ezin da izan onuradunak bere lana egitean izan duen kostua baino handiagoa, jasotako beste dirulaguntza edo diru sarrera batzuk ere kontuan hartuta.

**Zortzigarrena. Ebazpena**

1. Toki Administrazioaren eta Larrialdien Zerbitzua izango da prozedura izapidetzeko esku-mena duen organoa.

2. Lurralde Orekaren zuzendaria buru duen Balorazio Batzordeak aztertuko ditu eskaerak; batzorde hori osatuko dute, batzorde kide gisa, Laguntza Juridikoaren Atalaren buruak, Lurralde Orekaren Zuzendaritzari atxikitako teknikari batek, eta Toki Administrazioaren Zerbitzuaren buruak, idazkari gisa.

Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak, egoki deritzen kasuetan, aukeran izango du aurkeztutako agiriei buruzko datuak eta azalpenak eskatzea. Espedientea atzeratu, eta are artxibatu ere egin daiteke, datu edo azalpen horiek ez badira bideratzen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, ezartzen dituen epeetan.

Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera erkatu ondoren, balorazio batzordeak txostena egingo du ebaluazioaren emaitza zehaztuz, eta, beharrezkoa bada, eskaeren arteko lehentasuna ezarriko du.

3. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko entitate onuradunek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

4. Toki Administrazioaren Zerbitzuak proposaturik, organo eskudunak bidezkoa den ebazpena emango du, hiru hilabeteko epean gehienez, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, entitate onuradunek ezetsizat jo ahal izango dute eskaera.

5. Eskaera bakoitzari dagozkion izapideak bete eta gero, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde orekaren Saileko diputatuari aurkeztuko zaizkio, eta hark ebatziko ditu dagokion Foru Agindua- ren bidez, zeinak amaiera emango baitio administrazio bideari.

6. Dirulaguntzak emateko ebazpenean jaso beharko da dirulaguntza zein entitate onuraduni eman zaien, eta espresuki adierazi gainerako eskaerak ezetsi egin direla.

7. Ebazpen horretan, baiezkoa bada, dirulaguntzaren zenbatekoa adieraziko da, eta bai ere ordaintzeko modua, zer baldintzekin esleitu den, lanak gauzatzeko epea eta lana ezarritako epean bete ezean zer ondorio izango diren; bestalde, aurrerakin gisa edo konturako entrega gisa ordaindu ahal izango da esleitutako dirulaguntza, toki erakundeak dagokion kontratua esleitzen duen unean.

8. Ebazpen hori erakunde onuradunei jakinaraziko zaie urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. artikuluan ezarritakoaren arabera.

9. Ebazpenak administrazio bidea agortuko du. Haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahalko da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 8. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, bi hilabeteko epean ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

10. Onuradunen batek uko egiten badio dirulaguntzari, dirulaguntza eman ahal izango zaie oinarri honen hirugarren apartatuan ezarritako lehentasun ordenaren arabera hurrengoak diren toki erakundeei. Azkenean deialdiari esleitutako diru zenbatekoa muga izango da.

**Bederatzigarrena. Esleipena eta baldintzen plegua**

Dirulaguntzaren onuradun gertatzen den erakundeak ondasunen inbentarioa egiteko lanak esleituko ditu, aldez aurretik baldintza administratibo eta teknikoen plegua onarturik; Foru Aldundiak, horretarako, toki erakunde onuradunen esku jarriko du plegu horien eredu bat, erreferentzia gisa baliatzeko.

**Hamargarrena. Toki erakunde onuradunek aurkeztu beharreko agiriak, epeak, eta horiek ez betetzearen ondorioak**

Dirulaguntzen onuradun gertatzen diren erakundeek inbentarioa egiteko lanek eragindako gastuak frogatu beharko dituzte dagozkien fakturak aurkeztuz; diruz lagundutako ondasun inbentarioaren ale bat aurkeztu beharko dute, dirulaguntza esleitzeko foru aginduan ezarritako epean.

**Hamaikagarrena. Informazioa emateko betebeharra**

Erakunde onuraduna behartuta dago Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak eta Kontuen Epaitegiak edo beste organo eskudun batzuek eskatzen dioten informazio guztia ematera.

**Hamabigarrena. Dirulaguntzen bateragarritasuna**

Deialdi honetan emandako dirulaguntzak bateragarriak dira estatuko edo nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatu batzuek jarduera edo programa bererako emandako beste dirulaguntza batzuekin, baldin eta dirulaguntzaren zenbatekoak, berak bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, ez badu gainditzen diruz lagundutako programaren edo programen kostua.

Erakunde onuradunak jakinarazi egingo dio organo esleitzailari helburu bererako beste dirulaguntzarik edo laguntzarik eskuratu duenez edo eskuratzeko eskaerarik egin duenez, estatuko nahiz nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publikok emanik edo edozein entitate edo erakunde pribatuk emanik.

Ezingo dira izan dirulaguntza honen onuradun aurreko hamar urteetan ebatzitako deialdietan onuradun izan diren kontzejuak.

**Hamahirugarrena. Dirulaguntza galtzea**

Erakunde onuradunek galdu egin ahalko dituzte deialdi honetan emandako dirulaguntzak, aldez aurretik espedientea hasita, 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzkoak, eta azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, ezarritako kasuetan.

Dirulaguntza galtzen bada espedientearen bertutez, lehen aipatutako xedapenetan ezarritako zehapen araubidea ezarriko da.

**Hamalagarrena. Publizitatea**

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

**Hamabosgarrena. Errekurtsuak**

Deialdi hau zein beronen ondorioz sortutako administrazio egintza oro inpugna daiteke, Herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearen Legeak ezarritako kasuetan eta eran.

**Hamaseigarrena. Azken klausula**

Oinarri hauetan xedatuta ez dagoen guztia 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzenak, eta azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, arautuko dute, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauak ere.

**III. ERANSKINA**

Dirulaguntza lerroa: Ondasun inbentarioak egiteko dirulaguntzak.

Lehentasun estrategikoa: Inbertsioak berreskuratzea eta lurralde oreka.

Ardatz estrategikoa: 7. Lurralde orekan aurrera egitea.

Helburu estrategikoa: 7.5. Landa azpiegiturak hobetzea.

Saila: Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreken Saila.

Aurrekontu partida: 10.2.98 1700 762.90.03 Kontzejuen eta udal txikien inbentarioak:

2018	2019	2020	GUZTIRA
300.000,00	0,00	0,00	300.000,00

Dirulaguntzaren xedea:

Laguntzak ematea Arabako Lurralde Historikoko udalei eta kontzejueri, ondasun inbentarioak egiteko.

Onuradunak: Arabako 250 biztanletik beherako udalak eta kontzejuak.

Dirulaguntzak esleitzeko prozedura: Lehiaketa.

Dirulaguntzaren oinarrizko lerroak:

a) Toki erakundeen ondasun inbentarioak egitea.

b) Inbentarioan jasotako ondasun higiezinak jabetza erregistroan inskribatzea.

Baterako finantzazioa: ez dago.

Jarraipen erregimena eta adierazleak: ez dagokio.